



Esperientzia bikaina

Arnotegi Erdi Aroko eta Errenazimenduko musika lehiaketa nazionalan parte hartu du Alboka abesbatzak; bigarren izan da / 5

ALBOKA ABESBATZA

"Funtsezko" inbertsioetarako

Kreditu aldaketa bat egitea onartu du udalak; herrian egin beharreko zenbait lanetara 6.568.332 euro bideratuko ditu / 2

"Gaztetasuna eta eskarmentua" duen hauteskunde zerrenda aurkeztu du Lasarte-Oriako EAJK / 3

Dantz Point jaialdiak bigarren aldiz hartuko du herria; Brunet Enea parkean egingo dute aurtengoa / 4

Gesalaga Okelan Zarautz Ohorezko B mailako bigarren sailkatu eta Ligako finalerdietan da / 10

Aitor Anabitarte herritarrak CCAC Ligako zein NAIA mailako aipamen bereziak jaso ditu / 12

Hezkuntza sistemak euskaraz izan behar duenaren aldarriekin bat egin dute Oriarte BHiko ikasleek / 13

TXINTXARRI-ren Aste Santuko argazki lehiaketan parte hartzeko azken aukera / 16

8

.URTEURRENA

LASARTEORIATARREN BEGIEN OSASUNA ZAINTZEN

Deskontu handiekin ospatuko dugu, aprobetxa itzazu!

Hartu hitzordua 943 377 455 telefonoan edo whatsapp bidez



Kale Nagusia, 15
LASARTE-ORIA
MULTIÓPTICAS

"Garrantzisuak" diren inbertsioak egiteko

Udal korporazioak 6.568.332 euroko kreditu aldaketa bat onartu du berriki, herriarentzat "funtsezkoak" diren zenbait esku hartze aurrera eramateko. Aurrekontuaren erdia baino gehiago bi igogailu eraikitzea bideratuko ditu udalak: Zabaletan bat eta Goikalen bestea

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak 6.568.332 euro bideratuko ditu herritarrentzat "funtsezkoak" diren inbertsioak egiteko, Ogasun batzordeburu Iñigo Zabaleta eta Agustin Valdivia alkatearen hitzetan. Aurrekontuaren erdia baino gehiago Zabaletan eta Goikalen igogailu bana jartzeko erabiliko dute, 3.875.248 euro. Ikastetxeetan egin beharreko lan batzuk eta kiroldegi berriaren obren lizitazioa ere jaso dituzte, besteak beste.

Kreditu aldaketa hori onartu izanaren arrazoiak bat izan da diru partida berri batzuk sortzea. Horietako bat da arestian aipatutako igogailuena, baina ez bakarrik: 424.483 euro bideratuko ditu udalak Landaberri ikastolako fatxada berritzera; 235.070 euro Green plazako ur saneamendu sistema konpontzera; 230.000 euro Jaizkibel plazako obrak likidatzera; 200.000 euro kultur etxeko konponketa lanetara;

90.000 euro Sasoeta eta Garaikoetxea ikastetxeetan patio inklusibo bana eraikitzea; eta 55.000 euro udal brigadarentzat bi ibilgailu erostera.

Inbertsio berriak ez ezik, lehendik onartutako batzuetara diru gehiago bideratuko dute. Esate baterako, herriko bide publikoa garbitzeko kontratua aurten lizitatuko du, eta partida 288.334 eurotan handituko; aurrekontua 1.334.425 eurokoa izango da orotara. Bestalde, Manttangorri hiribusaren zerbitzua "hobetu" egin nahi dutela zehaztu du alkateak, eta 92.253 euro erabiliko dituztela horretarako: Zatarain auzoraino joango da garraio publiko hori, eta gauzez zeharkatuko du herria "festa jakin batzuetan".

Kiroldegi berria

Udal ordezkariak azaldu dutenez, kiroldegi berria eraikitzeke lanak laster lizitatuko dituzte, Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitaratu eta berehala. Horri

begira, 2023tik 2026ra bitartean konpromiso kreditu bana onartu dute, urte bakoitzeko bat: aurten, 1.495.350 euro; datorren urtean, 1.972.101 euro; bi urte barru, 5.972.100 euro; eta 2026an, 3.000.000 euro. Orotara, 19.439.551 euroko kostua izango dute lanek. "Aurrekontuaren banaketa era jakin batera egin dugu, konpromiso kredituei buruz legeak esaten duena betetzeko", zehaztu du Zabaletak.

Udalbatzar horretan onartutako kreditu aldaketan langile batzuk kontratatzeke dirua gorde dute: Udaltzaingoan lan egiteko administrazio laguntzaile bat; gazteak dinamizatzeke pertsona bat; administrazio orokorra kudeatzeko teknikari bat; administrazio langile bat idazkaritzan aritzeko; eta gizarte langile bat. Azkenik, partida batzuk prestatu dituzte herriko zenbait eragilerekin indarrean dituzten hitzarmenak ordaintzeko. "Herrigintza oso garrantzitsua da".

Diru partida esanguratsu batzuk



Buenos Aireseko aldapa. TXINTXARRI



Kale Nagusiko espaloio bat. TXINTXARRI

Igogailu bana Zabaletan eta Goikalen.

Kreditu aldaketara bideratuko duten aurrekontuaren erdia baino gehiago bi igogailu egiteko erabiliko dute: Zabaletan bat eta Goikalen bestea. 3.875.248 euroko kostua izango dute bi instalakuntza horiek.

Lasarte-Oriako bide publikoa garbitzeko kontratua.

Diru partida hau dagoeneko onartuta izanagatik, handitzea erabaki dute, 288.334 euro gehiagorekin. Aurten lizitatuko dute kontratua; aurrekontua 1.334.425 eurokoa izango dela zehaztu du alkateak.



Landaberriko fatxada. L-O UDALA



Green plaza, sarrera. TXINTXARRI

Landaberri ikastolako fatxada eraberritu.

Udalak inbertsio plan bat prestatu zuen 2021-2023 aldirako, eta Landaberri ikastolako fatxadan obra eginda itxiko du. 424.483 euro bideratuko ditu zentro horren kanpoaldea konpontzera.

Green plazako saneamendu konpontzeko lanak.

Euri urak biltzeko arazoak dituzte Atsobakar auzoko eremu horretan eta likidoa garajeetara sartzen da. Hori konpontze aldera 235.070 euroko diru partida bat eratzea adostu du udal korporazioak.

Datorren urteko Inauterietako gaia proposatzeko azken egunak

Martxan da 2024. urteko Inauterietako gaia aukeratzeko prozesua; hilaren 30era arte bidal daitezke iritziak

Txintxarri

Urrun daude oraindik datorren urteko Inauterietako gaia aukeratzeko prozesua, baina horiek denboraz prestatzeko, gaiak proposatzeko parte hartze prozesua abian du Lasarte-Oriako Udalak. Agustin Valdivia alkateak eta Txus Alonso Jaiak ataleko buruak azaldu dute herritarrek nola helarazi ahal dituzten euren proposamenak. Bi modutara bidal ditzakete lasarteoriarrek euren iritziak. Alde batetik, etxetan jaso duten



Arxiboko irudi bat. TXINTXARRI

txarteltxoa betez. Horiek bete, eta udalaren parte hartze postontzietan (Emakumeen Zentroa, kultur etxea, Gaztelekua, udaletxeke arkupe zaharrak edo kiroldegia) utzi beharko dituzte. Sarean egiteko aukera ere izango dute, udalaren web ataria erabiliz.

Hilaren 30era bitarte dute interesdunek iradokizunak egiteko aukera, eta udal ordezkariak jakinarazi dute behin proposamen guztiak jasota, konpartsekin bilera egin eta bertan erabakiko dutela gaia, eta orduan iragarriko dutela.

Gaztelekuko ikasteko espazioa erabil dezakete gazteek

Astearte eta ostegunetan, 17:30etik 20:00etara joan daitezke gazteak, ikastera Gaztelekura

Txintxarri

Lasarte-Oriako Gaztelekuak badu gazteek ikasteko eremu bat, eta espazio hori berriz ere erabili dezakete gazteek, ekainera bitarte. Koronabirusak eragindako pandemia medio, itxi egin behar izan zuen udalak, eta asteon, Aste Santuko oporraldia eta gero, ireki ditu berriz ere ateak.

Astean bi egunez joan ahal izango dira gazteak bertara ikastera; astearte eta ostegunetan, 17:30etik 20:00etara.

Ohartarazpen bat egin dute udal ordezkariak; eremu hori erabiliko duten ikasleek ez dituztela eskola partikularrak jasoko.

Bestalde, nerabeentzako eremuan tailerrak eramango dituztela aurrera ere berri ere eman du udalak. Momentuz, ez du horren inguruko informazio gehiegirik eman. Soilik aurreratuta du maiatzean hasiko direla, eta ostiral eta larunbatetan izango direla eta 17:00etatik 20:00etara.

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023



Hauteskunde zerrenda aurkeztu du EAJk

"Gaztetasuna eta eskarmentua" batzen dituen hauteskunde zerrenda aurkeztu du Lasarte-Oriako EAJk. Gizarte eragileen ehunean sinesten dutela azaldu dute, eta, azpimarratu, ohituak daudela auzolanera; Lasarte-Oria barru-barrutik ezagutzen dutela

Txintxarri

Tximistarreta parkean egin du EAJk datozen hauteskundeetarako hautagaien zerrendaren aurkezpena. Bertan izan da Jon Antxordoki zerrendaburu eta alkategaia ere, eta nabarmendu du, "kudeaketan, herrigintzan eta auzogintzan eskarmentua duen hautagaitza" zerrenda dela. Gaineratu du "hanka instituzionala eta hanka soziala" ere badituela bere alderdiak aurkeztutako taldeak, eta "herrian dena emateko eta herriarekin lan egiteko prest" dagoela. "Lasarte-Oriak behar dituen proiektuak lehenbailehen aurrera eramateko pertsona eraginkorrak eta arduratsuak aurkezten ditugu", gaineratu du.

Bide beretik jarraituz, hautagai taldearen "sendotasuna" ere azpimarratu du: "Herria gidatu nahi dugu Lasarte-Oria hobea egiteko, ilusioz beterik eta gure herriko jendearengan sinetsiz. Gure herriaren alde lan egingo duen hautagaitza indartsua osatzen dugu, gaztetasuna eta eskarmentua batu ditugu,



Lasarte-Oriako EAJk Tximistarreta parkean aurkeztu du hautagai zerrenda. EAJ

alderdikide eta independente talde zabala elkartu baikara".

Elkarlanaren beharraz ere hitz egin du: "EAJ-PNVren hautagaitza osatzen dugunok Lasarte-Oriako gizarte eragileen ehunean sinesten dugu, eta ohituak gaude auzolanera, Lasarte-Oria barru-barrutik ezagutzen baitugu".

EAJREN ZERRENDA:

1. Jon Antxordoki Rekondo.
2. Anne Ugarteburu Cialceta (Independetea)
3. Goizalde Pildain Narvarte.
4. Ainara Elicechea Beitia (Ind.)
5. Aitor Lucero Dominguez (Ind.)
6. Estitxu Alkorta Barragan.
7. Eneko Martinez Lizardi (Ind.)
8. Itziar Arroyo Carrera.
9. Daniel Corman Santamaria
10. Sergio Lucas Fernandez
11. Ramon Ormazabal Mendiguren (Ind.)



Gereziendo artean aurkeztu dute antolatzaileek aurtengo azoka. TXINTXARRI

Lore eta landareak erosteko aukera izango dute herritarrek

X. Lore eta Landareen azokak girotuko du Okendo plaza, bihar, hilak 22. 10:00etatik 14:30era izango da.

Txintxarri

Lore eta landareen erakusleihu bilakatuko da Okendo plaza larunbat honetan, hilak 22. Behemendi Elkarteak, deKolare Natur Azoka eta Lasarte-Oriako Udala dira antolatzaileak, eta iragarri dutenez, ohi bezala Okendo plazan egingo da aurtengoa ere. Bi ordu eta erdiko tartea izango dute herritarrek produktuak ikusi edota erostera joateko, eta etxeko txikientzat, aldiz, jolas eta tailerrak iragarri dituzte. Batetik, lore lehorrekn orri markatzailea egiten ikasiko dute, eta, bestetik, landaretxoak landatzen ere bai.

Zortzi postuk osatuko dute aurtengo azoka. Izango dira, horien artean, landare eta lore

naturalak eskainiko dituztenak, baita haziak, kosmetika naturaleko produktuak, edota lore eta landareekin egindako bitxi eta bestelako produktuak salduko dituztenak ere. Horien guztien artean, bat lasarteoriatarra, hazi ekologikoena.

Antolatzaileak pozik agertu dira beste urtebetez egitasmoa aurrera eramango dutelako, eta adierazi dute, espero dutela beste hainbestez horretan jarraitzea. Gogorazi dute salgaiak produktoreengandik zuzenean erosteko aukera bikaina eskaintzen duela azokak, eta herritarrei dei egin diete kalera irten eta azokaz goza dezaten.

txitxardin

BRASA ETA TRADIZIOA

ZURE OSPAKIZUNAK BEREZIAK
IZANGO DIRA GURE JATETXEAN

Ezkontzak | Jaunartzeak | Ospakizunak

CASA HUMADA

Oria Etorbidea, 12 LASARTE-ORIA
943-04 62 97 | 662 06 66 79
info@casahumada.com

Musika elektronikoaren dantzaleku izango da

Oria auzoko Brunet Enea parkean musika elektronikoa entzungo dute bihar, hilak 22. Jokin Telleria herritarrak sortutako Dantz Point egitasmoaren bigarren edizioa iragarri dute; ondare historiko edo artistikoak eta musika elektronikoa uztartzea du xede

Txintxarri

Agustin Valdivia alkateak, Txus Alonso jaietako zinegotziak eta Jokin Telleria Dantz Pointeko sortzaile eta zuzendariak aurkeztu dute jaialdiaren bigarren aldia, Brunet Enea parkean.

Udal ordezkariak hitza hartu eta egitasmoa zertan dantzan azaldu dute lehenik. Azaldu dute Dantz Point musika plataforma bat dela, eta, horren alderdi esanguratsuen dela saioak espazio enblematiko edo historikoetan egitea. Musika elektronikoaren eta edozein udalerritako ondare historiko edo artistikoaren dibulgazioa uztartzean da ekimenaren helburua, eta, kasu honetan, 1845. urtean sortutako Hilados Brunet Fabrika da jarduera egiteko aukeratu duten ondarea.

Aurtengo egitasmoan musika jartzeaz arduratuko den DJetako bat lasarteoriatarra da: Giovanni. Afrohouse, underground eta minimal musikaren eragina du,



Antolatzaileak, Brunet Enean. TXINTXARRI

eta Donostiako eta Gipuzkoako eszena elektronikoan oso aktibo dagoen DJa dela nabarmendu dute antolatzaileek.

Berarekin batera arituko da Almuedo. Donostiarra da, house-electro estiloa jorratzen du, eta oso ondo egokitzen da publiko mota eta lekura. Bi DJen artean musika estiloen kalitatea eta

aniztasuna lortzen dutela azpimarratu du Telleriak.

Ohartarazi du, jendeak musika elektronikoa gaua eta festa besterik ez dela pentsatu ohi duela, eta uste oker hori baztertzeko, publiko berriengana hurbildu nahi dela musika estilo hori: "Musika elektronikoaren barruan estilo ezberdin asko daude, besteak beste, musika oso lasaiak eta musika esperimental dantzagarriagoak, eragin ezberdinekin".

Jaialdia 19:00etan hasiko da eta gauerdian amaitu. Eguraldi txarra eginez gero, datorren larunbatera, hilak 29, atzeratuko dutela iragarri dute antolatzaileek. Jakinarazi dute baita ere barran kontsumitu ahal izango dela, komun publikoak egongo direla, eta Casa Humada jatetxeak janaria eskainiko duela.

Bertaratzen direnek "esperientzia ezberdin bat" bizitzeko aukera izango dutela gaineratu du Telleriak.

Manuel Iturrioz Unanue lasarteoriatarra hil da berriki

Gure herrian oso ezaguna izan da, jarduera eta egitasmo askotan parte hartu eta lagundu duelako hainbat urtetan

Txintxarri

Martxoaren 28an hil zen Manuel Iturrioz Unanue, gaixotasun larri baten ondorioz. Herritar oso ezaguna izan zen Lasarte-Orian, bertako jarduera eta egitasmo ugartan parte hartu zuelako; beti izan zen laguntzeko prest. Horrez gain, urte luzez lan egin zuen udaletxean, obren zerbitzuan, duela hamar urte erretiroa hartu zuen arte; San Pedro Jaietako mantentze lanetako brigadako kideetako bat ere izan zen.

Maite Aizpuruarekin ezkondu zegoen (artikulu hau



Maite eta Manuel. ITURRIOZ-AIZPURUA SENDIA

ilustratzen duen argazkian biak azaltzen dira, urrezko ezteiak ospatzen). Lehen esan bezala, herriko ekimen askotan parte hartu zuen, eta sustatu ere bai: adibidez, Okela Eguna, Okendo plazan urte askotan ospatu zena. Zumaburu auzoko Arantzazuko Ama parrokian ere lagundu zuen, eta behin baino gehiagotan eraman zuen gurutzea Azkorteran, Aste Santuko ospakizunetan.

Palomo Linares elkarte gastronomikoko bazkide izan zen Manuel, eta Lasarte-Oriako beste egoitza batzuetara joaten zen sarritan, adibidez, Lasartearrara. Mendizale amorratua ere bazen, eta perretxikoak jasotzen aditua. Gaixo zegoela, zaletasun hori erakutsi zien Ana eta Izaskun alabei. Goian bego!



NEURE KABUZ
GORKA LASA

Lau hilabete

Ez da hainbeste denbora pasa, lau hilabete besterik ez, nahiz eta batzuetan denbora hori eternitate bat iruditu, eta bestetan atzo goizean bailitzan igaro.

Gogoan dut, oroitzapen lausoa izan arren, negua zela, hotz handirik ez, baina eguna motz eta gaua luze. Gabonetako ospakizunetan murgilduta, oporretako giroaz gozatzen. Urte zahar eguna zen, ilunduta jada, baina goiz oraindik etxeratzeke, afari aurreko poteoan gora eta behera kalez kale. Urte guztian ozta-ozta agurtzen duzunari ere muxuak emateko ohitura, nahiz eta ni ez izan horren zale. Afaltzeko ordua iritsi eta etxerantz bare, amak afaria prest, arrain zopa, legatz, turroi eta mahats ale.

Gabonetako betekadaren ondoren iritsi zen San Sebastian eguna. Gau magikoa, berezia eta hunkigarria. Kaleak bete jende, danborrak astinduz etengabe, konpainiak parez pare, hiria dardarka jarri arte.

Urtarrila amaitu bezain laster, otsaila dugu aurrez aurre, sartu eta berehala ditu Santak bere. Santa Agedako koplariak kantari atez ate, San Blaseta erroskila goxoak egiteko prestaturik su eta labe.

Hungariatik etorritako kaldereroak inauterien iragarle. Momo jainkosak hartu du hiria bere menpe eta kaleetan zehar dabilta artzain eta inude.

Inauteri edo aratuste, zenbat mozorro eta desfile. Leitzan eta Lesakan ederrak, baina Tolosan paregabe. Martxoan sarturik jada, gaua moztzen hasia eta eguna luzatzen, horrekin batera ordu aldaketa nozitzen.

Udaberria sartu da indarrez, lorez bete larre, loretan erle, sorotan bele. Euria ari du etengabe, erreketan ubidea xede, giroa da heze, belardiak berde, udaberria bete-bete.

Aste Santua behingoz, oporrak tarteko hartzeko atsedean. Soilik bi aste, ez da asko baina ezer baino hobea.

Ez dira berriz itzuliko igarotako ordu, egun eta aste, pasa dira jada lau hilabete.

Denbora honetan zenbat naizen zahartu, bizitzaren errotan sartu, asmoak eta ametsak sortu, baina batez ere bizitzarekin ez zortu.



TXINTXARRI

Sonataz sonata, bidaia musikala

Danak Kide elkarteak XVIII. Musika Topaketak aurrera eramango ditu gaur, hilak 21, Brigitarren komentuan, 19:30ean. Doakoa da sarrera. Aurtengo hitzordura Ars Combinatoria gonbidatu du, musikari trebeez osatutako taldea, hain zuzen. XVII. mendeko zenbait konpositore klasikoren sonatekin osatu dute egitaraua.

Gaztambideren zarzuela eskainiko diete ikus-entzuleei

Sinfonia Navarrak eta Coral Olitensek emanaldia egingo dute etzi, hilak 23, kultur etxean; 19:00etan hasiko da

Txintxarri

Berriki aurkeztu dute La gran Zarzuela emanaldia Lasarte-Oriako udalak eta Sinfonia Navarrako kide eta sortzaile Kinito Huerta nahiz Alvaro Iborrak, kultur etxean. Iragarri

dute Joaquin Gaztambide XIX. mendeko konpositore ezagunaren musikaz gozatu ahal izango dutela bertaratzen direnek. Emanaldia Sinfonia Navarra eta Coral Olitense osatzen duten kideen bitartez jasoko dute.

Horrez gain, aurreratutako dute oholtza gainera igoko direla Raquel Fernandez sopranoa eta Jose Luis Sola tenorea; horiekin batera ariko da Rinaldo Zhok piano jotzaile italiarra. Javier Echarri zuzendariak gidatuko ditu aipatu musikari horiek guztiak. Emanaldi "bakar, dinamiko eta polita" izango dela adierazi dute antolatzaileek. Agustin Valdivia alkateak nabarmendu du galdu ezin den hitzordua izango dela hilaren 23koa. Sarrerek 14 euro balio dute.



Sinfoniako kideak eta udal ordezkariak, ekimena aurkezten. TXINTXARRI



Albokako eta Erketzeko kideak, 'Stella Splendens' abestian. MISTERIOA FUNDAZIOA

Bigarren izan da Alboka abesbatza Arnotegi lehiaketan

Erdi Aroko eta Errenazimenduko abestiz osatutako egitaraua eskaini du herriko taldeak Nafarroako Obanos herrian

Txintxarri

Erdi Aroko eta Errenazimenduko musika lehiaketa nazionalan parte hartu du berriki Alboka abesbatzak, Nafarroako Obanos herrian. Bertako Misterioa fundazioak antolatu du ekitaldia. Iruñeko La Asuncion eta Madrilgo Salix Cantor taldeekin batera lehiatu dira herritarrak, eta bigarren postua eskuratu dute.

Taldeakideak "pozarren" daude lortutako emaitzarekin eta azken hilabeteetan egindako prestaketa lanagatik. Era berean, eskerrak eman dizkiete Erketz EDT taldeko dantzari, azken hilabeteetan emandako laguntzagatik. Errepertorioko lehen abestian dantzatu dute, Montserrat-eko Libre Vermelleko *Stella Splendens* izenekoan. Pieza horren bidez Erdi Aroko giroan murgildu dituzte ikus-entzuleak.

Ostean, XIV. eta XVI. mendeen arteko doinuak eskaini dituzte: Aita Donostiaren *Virgo Dei Genitri*; T. Tallis-en *If ye love me*; B. Carceres-en *Sus, sus, sus (La Trulla)*; Bob Chilcott-ek moldatutako Juan de Anchieta-ren *Con amores la mi madre*; eta Juan del Encinaren *Mas vale trocar zein Oy comamos y bebamos*.

Salix Cantor kamera abesbatzak irabazi du epaileen sari nagusia; zuzendari onenarena, La Asuncion taldeko Beatriz Agirrek; eta ikus-entzuleena, Iruñeko abesbatza horrek.

Arnotegi lehiaketa atzean utzita, lanean jarraitzen du Albokak, esku artean dituen gainerako emanaldiak prestatzen. Ekainaren 24an aurrera eramango du horietako bat, ikasturte amaierako kontzertua hain zuzen. San Pedro Jaien aurrekarietako bat izango da.

UDABERRIKO BERTSO SAIOA

TRADIZIOARI TRAZIO

APIRILAK 29 20:00 Manuel Lekuona kultur etxean

Bertsolariak:

Ane Labaka
Onintza Enbeita
Andoni Egaña

Gai jartzailea:
Beatriz Egizabal

Parte hartuko dute: Uxue Odriozola, Javi Herros, Aritz Ramos, Bertso eskolako gazteak, Ibai Morales...

Sarrerak: 6 euro | 10 sarrerako bonoa 48 euro
Salgai: Manuel Lekuona kultur etxean eta Kutxabank-en




ALdea dago! Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. 14 dira guztira.




Zer da?



Animalia eder honek aintzira eta ibai bazterrak ditu gogoko. Oso ongi daki igerian eta arrainak jaten ditu. Zoritxarrez halako gutxi ditugu Euskal Herrian. Ba al dakizu zer izen duen? Ez badakizu, eraman beheko hizkietako bakoitza dagokion lekura eta hortxe agertuko zaizu.



DOMINOAN



Marraz itzazu falta diren irudiak, domino zati honek zentzua izan dezan.



SUDOKUA

	I				H
		O	A		D
			O		E
	D	E		A	
A			I		O
E		I		H	



Bete hutsuneak HODEIA hitzak dituen letren bidez. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

HANDIENETIK TXIKIENERA



Zazpi loreek handienetik txikienera ordenatu behar ditugu. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 7.



Idatzi lauki banatan pertsonaia bakoitzaren esaldia

Zeeer??!!

Zer diote gure laguntxoek? Hasi bakoitzaren gezitxotik eta lotu hizkiak banan-banan, hariari jarraituz. Puntu urdinak hitzen arteko espazioak dira.

UDAKO TXOKOAK

Udaran bero, txokoetan ero!

#euskara #herria #lagunekin #gaztetxoentzat #ondopasa
#betaurrekomoreak #oporak #urjolasak #maitasuna
#mendia #hondartza #aniztasuna #ilusioa

Ei TXIKI, SENTITU!

HH3-HH4

(2018 eta 2019

bitartean jaiokak)

JARDUERAK

Psikomotrizitate saioak.

Ipuietatik eta jolasetik
abiatuta asmakuntza
plastikoa.

Gorputz adierazpena eta soinuarekin
jolasean arituko gara. Tailerrak, Jolasak.



HI GAZTE! EI!

anima hadi! LH

(2011 eta 2014 bitartean)

JARDUERAK

Abentura eta kirola.

Natur ekintzak.

Talde jolasak eta probak

Tailerrak, irteerak eta jaiak

...PRESTATU...HH5-LH2

(2015 eta 2017 bitartean jaiokak)

JARDUERAK

Jostakirola saioak. Gorputz adierazpenaren
bidez mundu berri bat eraikiko dugu.

Talde jolasak, Irteerak...

ADI! LH

4 egun, Astigarraga

* Uztailaren 30

Astigarragara

206 € | 235 €

*1go hamabost

* 2. hamabost

148 € | 157 €



Ordutegiak eta prezioak

Hilabete osoa: Uztailaren 3tik 28ra (24 eta 25 JAI)
 1. hamabostaldia: 3tik 14ra | 2. hamabostaldia: 17tik 28ra (24 eta 25 JAI)

Ordaintzeko modua
 Kontu korrontetik egingo da kobrantza.

Ordutegiak	Seme-alaba bakarra	2 anai-arreba		3 anai-arreba			
MM3-MM4 Hilabete osoa	110 €	100 €		90 €			
09:00-13:00	147 €	137 €		127 €			
MM5-LM6 Hilabete osoa	120 €	110 €		100 €			
09:00-13:00	157 €	147 €		137 €			
MM3-MM4 1. edo 2. Hamabostaldia	10:00-13:00	66€	54€	61€	49€	56€	44€
	09:00-13:00	87€	70€	82€	65€	77€	60€
MM5-LM6 1. edo 2. Hamabostaldia	10:00-13:00	72€	58€	67€	53€	62€	48€
	09:00-13:00	92€	75€	87€	70€	82€	65€

*Ttakuneko bazkideek deskontua izango dute udalekuetako prezio guztietan.

GOITXOKO ZERBITZUA
 09:00etatik 10:00etara

JANGELA ZERBITZUA
 > 15:15ak arte.

Hilabetea: 120€ Hamabostaldia: 68€

*LEKUA geldituz gero egun solteak har daitezke.

EKIN!
LM3-LM6
 (tean jaiok)

Espazioak TTAKUNENA eta ORIARTE



Izen ematea
 (leku mugatuak)
 apirilaren 24tik
 maiatzaren 6ra

www.labur.eus/txokoak2023

LM1 ETA LM2 (aukeran)

Astigarragara joateko aukera izango duzue!
 3tik 14ra Udako Txokoetan. 17tik 20ra udaleku itxietako txanda txikia
 garrara eta hilabetea bukatzeko Udako Txokoetan berriz!

235 € (goitxokoarekin)

Hamabostaldia, Uztailaren 3tik 14ra + Astigarraga 191 € | 211 € (goitxokoarekin)

Hamabostaldia, Uztailaren 17tik 20ra Astigarragan eta 21etik 28ra Udako Txokoetan

157 € (goitxokoarekin)

Informazio gehiago:
 Tel: 943-37 14 48
aisia@ttakun.eus



Gesalaga Okelan Zarautz finalerdietan da

Ohorezko B mailako taldeak Fenix CR Zaragoza 54-0 garaitu du azken jardunaldian. Elite multzoan bigarren postuan sailkatu da Fran Puertas herritarrak zuzentzen duen taldea. Mazabi Santander Independiente RC izango du aurrez aurre Ligako finalerdian

Txintxarri

Gesalaga Okelan Zarautz taldeak garaipena erdietsiz amaitu du bigarren fasea. Hilaren 15ean, Fenix CR Zaragoza izan zuten beltzek aurrez aurre, Astiko zelaian; nagusi izan zen Fran Puertas herritarrak zuzentzen duen taldea. Erasoan zein defentsan bikain jardun ziren beltzak. Guztira zortzi entsegu eta bi gauzatze egin zituzten eta 54-0 amaitu zen neurketa.

Norgehiagoka hasi eta sei minutura markagailua ireki zuen etxeko taldeak entsegu eta gauzatzea egin ostean.

Aurkaria eraso saiatu arren, zarautzarrek ez zioten



Jon Ander Puertas herritarra, ihes egin nahian. PRESTAENA/ZARAUTZ RUGBY TALDEA

Fenixi metrorik irabazteko aukerarik eman. Eurak ordea, erraz iritsi ziren 50 metroko marrara eta horren erakusle atsedenaldiko emaitza izan zen, 42-0.

Lehen zatiaren amaieran, gainera, Jon Ander Puertas herritarrak zer esana eman zuen. Meletik baloia hartu eta bakarrik ihesi atera zen aurkariaren azken marraraino eta entsegu lortu zuen. Puertas hamabostekoan atera zen eta neurketa ederra egin zuen 57. minutuan aldatu zuten arte.

Bigarren zatian, Fenixek izan zuen baloiaren jabetza. Alabaina, beltzen defentsa lanari esker, aurkariak ez zuten punturik lortzerik izan; bitan bakarrik gerturatu ziren entsegu marrara.

Neurketa amaitzean zela, baloia bitan berreskuratu eta bi entsegu egin zituzten zarautzarrek.

Azken fasea

Denboraldi ederra egin du Zarauzko taldeak. Hamazazpi neurketa jokatu ditu. Horietatik hamahiru irabazi, bi berdindu eta bi galdu ditu. Lehen fasean zein Elite multzoan bigarren

postuan sailkatu da. Ondorioz, Ligako azken fasea jokatu dute beltzek.

Finalerdian hirugarren sailkatu Mazabi Santander Independiente izango du aurkari. Hileko azken asteburuan eta maiatzeko lehenengoan jokatu dituzte neurketak. Lehena Santanderren izango da; bigarrena, aldiz, Astin.

Kantabriako taldea gaudituz gero, Alcobendas Rugby eta CR Sant Cugat taldeen arteko partidako irabazlearen aurka neurtuko ditu indarrak finalean Gesalaga Okelan Zarautz taldeak.

Ligako garailea Ohorezko mailara igoko da zuzenean; txapelduordeak, berriz, Ohorezko Mailako hamaikagarren sailkatuaren aurka jokatu du igoera.

Harrobia ere fin

Ez da Ohorezko B mailako taldea denboraldia amaitu duen bakarra izan, Euskal Ligako 16 urtez azpiko jokalariek ere azken neurketa jokatu zuten Logroñon, Errioxan. Domiberia R.C. Rioja 12ren aurka lehiatu zen Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldea eta gaztetxoek 7-24 irabazi zuten.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Beti Gazte KJKE - Ostadar SKT
Igandea. 18:30. Mastegi, Lesaka, Nafarroan.

GORENGOEN MAILA

Orioko FT - Ostadar SKT
Ostirala. 20:15. Mendibeltz, Orion.

ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA

Ostadar SKT - Arrupe Chaminade CD
Larunbata. 17:55. Michelin kirol gunean.

San Marcial CD - Texas Lasarte CF
Larunbata. 17:30. San Jose Obrero, Iruñen.

OHOREZKO JUBENIL MAILA

Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro FKE
Larunbata. 16:00. Michelin kirol gunean.

JUBENIL 1. MAILA, IGOERA

Ostadar SKT B - Lagun Onak CD B
Igandea. 16:45. Michelin kirol gunean.

JUBENIL 1. MAILA, KOPA

Texas Lasarte CF - Kostkas KE D
Igandea. 11:20. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO KADETE MAILA

Ostadar SKT - Lengokoak KE
Igandea. 15:00. Michelin kirol gunean.

KADETE 1. MAILA, KOPA

Texas Lasarte CF - Usurbil FT B
Larunbata. 11:05. Michelin kirol gunean.

Sporting de Herrera - Ostadar SKT C
Larunbata. 11:00. Herrera, Donostian.

Ostadar SKT B - Oiarzun KE B
Igandea. 13:15. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO INFANTIL MAILA, KOPA

Aretxabaleta KE UDA - Ostadar SKT
Larunbata. 11:00. Ibarra, Aretxabaletan.

INFANTIK TXIKI, KOPA

Ostadar SKT - Internacional CD
Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.

INF. 1. MAILA, TXAPELDUNEN FASEA

Texas Lasarte CF - Aizkorri Goierri FT
Larunbata. 12:50. Michelin kirol gunean.

INFANTIL 1. MAILA, KOPA

Ostadar SKT A - Intxurre KKE
Larunbata. 14:25. Michelin kirol gunean.

Lizeotarrak C - Ostadar SKT B
Igandea. 09:00. Berio, Donostian.

INFANTIL F8, KOPA

Ostadar SKT - Martutene KE B
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA

1. MAILA

Egintza KE - Eguzki Arkupe Rehab.
Ostirala. 21:30. Abraham Olano kirol., Anoetan.

2. MAILA

Eguzki ISU Leihok - Aldapeta Maria Ik. A
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

GAZTEEN MAILA, KOPA

AF Antxo Pescaderia Ferreres - Eguzki Bodegas Ayesa
Larunbata. 14:00. Pasai Donibane kirol., Pasaian.

INFANTIL MAILA, 2. FASEA

Eguzki AF - Antiguoko KE Clinica Dental Goyeneche
Igandea. 13:00. Maialen Chourraut kirol.

SASKIBALOIA

SENIOR 1. MAILA

Tecnun - Ostadar SKT
Larunbata. 19:00. Tecnun, Donostian.

JUNIOR PARTAIDETZA, IGOERA

Ostadar SKT A - Hemen Garbiketak Eskoriatza KE
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

JUNIOR PARTAIDETZA

Ostadar SKT B - Oiarzungo Saskilagunak SKT
Larunbata. 11:00. Maialen Chourraut kirol.

KADETE ERRENDI., KANPORAKETAK

Ostadar SKT- Bera Bera
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

KADETE PARTAIDETZA

Ostadar SKT- SasakiAxular Uliia
Larunbata. 12:45. Maialen Chourraut kirol.

Aloña Mendi KE - Ostadar SKT (atzeratutako partida)
Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL ERRENDI. URRE, 2. FASEA

Zast 2009 - Ostadar SKT
Larunbata. 13:30. Aritzabalde kirol., Zarautzen.

INFANTIL ERRENDI. ZILAR, 2. FASEA

Lana Ointxe! - Ostadar SKT (aurreratutako partida)
Igandea. 12:00. Musakola kirol., Arrasaten.

INFANTIL PARTAIDETZA

Easo Basket Urbia - Ostadar Beltza
Larunbata. 16:00. Altxa kirol., Donostian.

BOLEIBOLA

JUBENILA, AZKEN FASEA

Ostadar SKT - Arizmendi
Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

KADETEA

Ostadar SKT B - Tolobolei B
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

Ostadar SKT A - Goierri KE 1

Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

INFANTILA

Arizmendi - Ostadar SKT A
Larunbata. 10:00. Ibarra kirol., Eskoriatzan.

PILOTA

JUB. 2. MAILA, LAU ETA ERDIA

Gazteleku (Salbador) - Intza (Olazabal)
Ostirala. 18:30. (3. partida) Arrate, Andoainen.

UDABERRI TX., ALEBINAK 1. MAILA

Intza (Urdanpilleta) - Oiarpe (Lasa)
Igandea. 11:15. Michelin kirol guneko pilotalekuan.

HERNANI 2 - INTZA

Larunbata. 16:00. Udalekoa, Hernanin.

ERRUGBIA

18 ETA 16 URTEZ AZPIKOA

Zarautz Beltzak RTko gazteek hiruko txapelketa bat jokatu dute Gernika RT eta Mallorca Academia Rugby taldeen aurka.
Larunbata. 16:10. Asti, Zarautzen.

14 URTEZ AZPIKOA

Txingudi Baztan - Zarautz Beltzak RT
Larunbata. 10:00. Plaiandi, Iruñen.

JUDO

BETERANO KOPA

LOKEko Asier Sagasti judoka Gasteizko Beterano Espainiako kopan lehiatuko da.
Larunbata. Goiza. Gasteizen, Araban.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

LOKEko Marco Irisok Eskola kirola mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko du.
Igandea. Agustian Otaola pilotalekua, Erreterian.

ATLETISMO

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ostadar SKTko alebin eta infantil mailako atleta gazteek eskolarteko bakarkako Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute.
Igandea. Goiza. Unbe, Eibarren.

IRUN MILAK 5K

Lasarte-Oriako korrikalariak Irun Milak 5K proba lehiatuko dute.
Igandea. 10:00. Iruñen.

HITZALDIA

LOTMEK Silvia Trigueros trail lasterkariarekin solasaldia antolatuko du.
Ostirala. 19:30. Manuel Lekuona kultur etxea.

DUATLOIA

ZIZURKILGO DUATLOIA

Lasarte-Oriako kirolariak Zizurkilgo II. Duatloian parte hartuko dute.
Larunbata. 16:15. Zizurkilgo.

Maialen Chourraut, garaile La Seu d'Urgellen

Eslalon denboraldiko Espainiako 2. Kopa lehiatu dute La Seu d'Urgelleko kanalean. Maialen Chourraut herritarra K1 mailan lehiatu da eta bi jardunaldietan urrezko domina jantzi du. Espainiako selekzioko taldea aukeratzeko lehen proba ere izan da lehia

Txintxarri

Maialen Chourraut herritarrak denboraldiko bigarren probari aurre egin zion hilaren 15ean eta 16an. Urtea Kayak kroseko lehiaketarekin hasi bazuen ere, oraingoan eslalomeko Espainiako 2. Kopa jokatu zuen La Seu D'Urgellen (Lleida, Herrialde Katalanak) eta garaile izan zen.

Maila ezberdinetako palistek bi jardunaldi lehiatu zituzten, bata larunbatean eta bestea igandean. K1 mailan, Monica Doria, Laia Sorribes eta Maialen Chourraut piraguisten arteko lehia bizia izan zen.

Lehen egunean, erlojuaren eta atek mugitzen haizearen aurka ere egin behar izan zuten kirolariak. Finalerdian Chourrautek hirugarren denborarik onena egin zuen (98.35), Sorribes eta Doriaren atzetik ibilbidean akats bat eginez.

Finalean, berriz, arazorik gabe jaitsi zuen kanala. Ehuneko



Maialen Chourraut, La Seu d'Urgelleko kanalean, kayak kros lehian. RFEF

gutxigatik hirugarren sailkatu zen helmugan. Alabaina, aurkariak ibilbidean zehar egindako hutsek garaipena eman zioten Chourrauti.

Bigarren egunean ere finalerdian hirugarren sailkatu zuen Chourraut; finalean, ordea, denborarik onena ezarri zuen herritarrak eta Sorribesek eta Doriak ezin izan zuten gainditu.

Nazioarteko lehiaketetan parte hartuko duten Espainiako selekzioko kideak aukeratzeko lehen hautaketa proba ere izan zen eta Chourrautek argi utzi du taldean egon nahi duela. Pausoz pauso Londresko Mundu txapelketarako prestatzen ari da herritarra; bertan Paris 2024 Joko Olinpikoetarako plazak banatuko dituzte.

Udaberriko denboraldiari agur esan dio Hipodromoak

Zaldi lasterketen zaletuek hogeitaz lasterketaz gozatu dute; horietako lau hondarrean jokatu dituzte

Txintxarri

Udaberriko denboraldia motza baina intentsoa izan da Hipodromoan. Hogeitaz lasterketa lehiatu dituzte martxo eta apirillean zehar jokaturako lau jardunaldietan.

Zaldi eta jockeyez gain, hilaren 12an, eguraldia eta pista izan ziren protagonista. Euriaren ondorioz belar pistaren egoerak kezka sortu zituen eta antolatzaile zein zaldi gidariak adostuta, hondarretako pista jokatu ziren lau lasterketa. 1996 urtetik ez zen horrelakorik gertatu Hipodromoan.



Sousa eta Diva Victoria. I. FARRE RICO

Azken jardunaldian, aldiz, Ricardo Sousak lehen bi lasterketak irabazi zituen Diva

Victoria eta Pantxineta gidatzen. Hirugarren saria Vaclav Janacek eta Conception Line bikoak lortu zuen; Le Rafele eta Julia Zambudiok eskuratu zuten laugarren saioko garaikurra eta denboraldiko azken podiuma Tirso de Molina eta Daisa Sikoriva bikoarentzat izan zen.

Aterpea elkartea

Lasarte-Oriaren presentzia handia izan da. Sariak eskuratu dituzten prestatzaileez gain, Aterpea merkatarien elkarreak hiru jardunaldi babestu ditu.

Zaletuak uztaila, abuztua eta irail hasieran jokatu duten udako denboraldiaren zain geratzen dira orain.

Hala ere, maiatzean (31) nahiz ekainean (7 eta 15) hiru jardunaldi jokatu dituzte, aurrekari modura.

Intzako pilotariak txapelketa berriei ekingo diete

Lasarte-Oriako pilotariak Lau eta Erdiko bakarkako lehian izango dira, baita Gipuzkoako txapelketan ere

Txintxarri

Aste Santuko atsedendialdiaren ostean, hilaren 22tik aurrera Intzako pilotariak lehiaketa ezberdinetan parte hartuko dute. Bakarkako txapelketei ekingo diete aurre nagusiki.

Jubenil 2. mailako Peru Urdanpilletak, Haritza Diaz de Gereñuk eta Beñat Olazabalek Lau eta Erdiko lehia jokatu dute. Txapelketako hasierako fasean, multzo ezberdinetan izango dira herriko pilotariak eta lehen jardunaldian Diaz de Gereñuk atsedena izango du.

Eskolarteko mailan, Oier Jauregi alebina ere modalitate bereko Gipuzkoako txapelketan lehiatzeko aukeratu du federazioak. Hamar gazte izango dira txapela eskuratzeko lehian eta Jauregi herritarra da horietako bat.

Itxaso Iparragirrek, aldiz, alebin nesken mailako Gipuzkoako txapelketa lehiatuko du. Eta pilota eskolako gaztetxoek bikotekako Udaberri txapelketari ere hasiera emango diote. Intzak alebin 1. mailan bikote bakarra izango du.



LOKE JUDO

Dominak Euskadiko txapelketan

Lasarte-Oria Kirol Elkarte (LOKE) judoek Euskadiko txapelketako podiumean eman diote hasiera apirilari. Ane Linazasoro eta Iraia Diaz infantilek brontzezko domina jantzi zuten Eskolarteko Kirol Jokoetan. Kadete mailan, aldiz, Unai Guisadok finala jokatu zuen. Ezin izan zuen Liher Pereda bizkaitarra garaitu eta zilarrekin konformatu behar izan zuen. Horrekin batera, Espainiako txapelketarako txartela ere eskuratu zuen Guisadok. Aitor Santosek hirugarren postuan amaitu zuen lehia.

Izarraitzez gozaten

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarte kide eta lagunek, hilaren 16an, Izarraitz mendilerroan barrena ibili ziren. Erlo, Xoxote eta Kakute mendian zeharkatu 16 kilometroko bidea egin zuten. Amaieran Azpeitian bapo berreskuratuz zituzten indarrak. Egun horretan bertan taldeko kide Juan Mari Marcos (02.25) eta Jose Ignacio Elvira (02.42) Berako XVII. Maratoi Erdian izan ziren lehian.



LASARTE-ORIA TRAIL

Anabitartek denboraldi ederra egin du Illinois-en

Aitor Anabitarte herritarra Saints taldean ari da jokatzen. Bere estatistikak kontuan izanik, CCAC Ligako zein NAIA mailako denboraldiko taldeetako zerrendan sartu da herritarra; Ligako asteko jokalarari onenaren izendapena ere jaso du urtarrilean

Txintzarri

Azaroan hasi eta otsailen amaitu zuen Aitor Anabitarte herritarrak saskibalo denboraldia. Lasarteoriatar gaztea Matematika eta Informatika ikasten ari da Saint Francis Unibertsitatean, Illinois-en, Estatu Batuetan. Unibertsitateko Saints taldean ari da lehian. Aurten Chicagoland Collegiate Athletic Conference (CCAC) Ligako zein College Sports Communicators erakundeko hainbat aitoren jaso ditu. Herritarrak iazko denboraldian ezin izan zuen jokatu belauneko lesio batengatik eta aurten arantza kendu ahal izan du.

Saints taldeak bosgarren postua eskuratu du aurten Ligan. Ondorioz, CCAC Ligako final laurdenak jokatu ditu irabzle izan den Indiana University



Aitor Anabitarte, Saints taldearekin erasoan jokatzen. UNIV. ST. FRANCIS

South Bend-en aurka. Partida zirraragarrian, puntu batengatik finalerditik kanpoan geratu zen Aitor Anabitarteren taldea, 50-51.

Herritarrak pisu handia izan du aurten taldearen jardunean. Liga, zein torneo ezberdinetako 27 neurketetatik 26 jokatu ditu. Guztira 776 minutu egon da

kantxan eta 434 puntu egin ditu. Partida batzuetan bere lana erabakigarria izan da. Hala nola, otsailaren 11n, Saints 85-73 gailendu zen East-West taldearen aurka eta Anabitartek 34 puntu egin zituen.

Aitormenak

Batazbesteko ederra izan du herritarrak (ikus ondoko taula) neurketako eta horregatik Ligak bi aitormen berezi egin dizkio.

Urtarrilean Ligako asteko jokalarariaren izendapena jaso zuen Lasarte-Oriako gazteak hilaren 16-22ko astean jokaturako hiru partidietan egindako lanarengatik.

Eta denboraldi amaieran egiten duen jokalarari onenaren zerrendan ere txertatu du Anabitarte. Bigarren taldeko lehen postua eskuratu du.

Horrez gain, College Sports Communicators erakundeak NAIA mailako lehen taldean sartu du lasarteoriatarra.

Estatu Batuetan ikasketak eta kirola uztartzen dituzten jokalarariaren jarduna saritzen du elkarteak Academic All-America programaren bitartez. National Collegiate Athletics Association (NCAA) eta National Association of Intercollegiate Athletics (NAIA) mailan egiten dira izendapenak.



UNIV. ST. FRANCIS

Denboraldiko batezbestekoa

- **Jokatutako minutuak** 28,7 m.
- **Puntuak** 16,1
- **Jaurtiketak** %59,6
- **Pertsonalak** %84,4
- **Hiruko jaurtiketak** %37
- **Asistentziak** 1,5.
- **Erreboteak** 8,1.
- **Baloi lapurketak** 1.

Anabitartek 4.0 GPA eskuratu du ikasketetan eta kantxan lortutako emaitzei gehituta ikasle-jokalarari onenarikoa izan da bere mailan.

Herriko taldeak Aste Santuko txapelketetako lehen postuetan

Ostadarreko kadetea zilarrezko mailako garaile izan da Tarragonan; Texaseko benjaminak, aldiz, laugarren Irunen

Txintzarri

Aste Santuan futbol lehiaketa ezberdinak lehiatu dituzte eta herriko taldeak horietako bitan izan dira lehian. Ostadar SKTko kadete taldea Terres de L'Ebre nazioarteko torneoan (ITE-DV7) izan zen hilaren 7tik 9ra, La Rapita herrian (Tarragona, Herrialde Katalanak). Hilaren 16an, aldiz, Texas Lasartearrako 2014 urteko benjamin taldea Behobia CDk antolatzen duen Aste Santuko txapelketan parte hartu du, Irunen. Bi taldeek garaikurrak ekarri dituzte Lasarte-Oriara.

Talde urdin-beltzeko kadete taldeak Tarragonara egin zuen bidaia ITE-DV7 txapelketa

jokatzeko. Multzoen fasean ez zuen zortetik izan; txapelketako zilarrezko mailako finalera iritsi zen, ordea. *Fair play* edo joko garbiaren saria ere jaso zuen kadete taldeak.

Finalean, CF Unio Can Rull talde katalanaren aurka neurtu zituen indarrak Ostadarrek. Husnako berdinketarekin amaitu zen lehia eta penaltietan erabaki zen garailea. Zirraragarria izan zen azken jaurtiketara arte ez baitzen Ostadar gailendu, 5-6.

Laugarren postua

Irunen, aldiz, egun bateko lehia izan zuten talde zuri-urdineko txikiek eta laugarren amaitu zuten lehia.

Multzoko fasean Behobia, Real Union, Kotskas eta Baztan taldeak izan zituzten aurrez aurre Texaseko benjaminak. Bi berdinketa eta garaipen eta porrot banarekin hirugarren talderik onena bezala sailkatu zen final laurdenetara.

David Cosme atezainaren lanari esker –hiru penalti geratu zituen– Texaseko taldeak Astigarragako Mundarro gaudituz zuen penaltietan eta finalerdiak jokatu zituen.

Berriro ere Kostkasen aurka egin behar izan zuen Texasek. Multzoen fasean bana berdindu bazuten ere, oraingoan Donostiako taldeak lortu zuen finalerako txartela 2-1eko emaitzarekin.

Egun osoa jokatzen egon ostean, hirugarren postuko neurketan Martutenek 4-0 irabazi zuen.

Brontzeko garaikurra lortu ez arren, taldeko arduradunak pozarren daude jokalariek lehiaketan erakutsitako gogo eta borrokarako grinarekin.



Ostadarreko kadete taldea (goian) eta Texas Lasartearrak-eko benjaminak (behean) txapelketa ezberdinetan izan dira lehian Aste Santuan. OSTADAR SKT / TEXAS LASARTEARRA

Ez gaituzte garaituko



Ikama ikasle antolakundeak antolatutako mobilizazio bat; hezkuntza sistema aldatzeko eskatu zuten. TXINTXARRI

Orain dela gutxi, Gazte Euskaltzaleen Sarea izeneko talde aktibista sortu dute eta '#M23Kalera' lemapean, martxoaren 23an Euskal Herriko hiriburuetakako kaleak hartu dituzte, euren aldarria zabaltzeko: hezkuntza sistemak euskaraz izan behar duela

Maddi Lasa Ormazabal, Libe Elvira Arizeta, Aritz Ramos Irazusta, Urko Ormazabal Zugarramurdi eta Julen Gonzalez Toquero

Gazte Euskaltzaleen Sarea Euskal Herri osoko herrialde guztietako hainbat kidez osatutako sarea da, bi helburu nagusi dituena: euskararen aldeko borrokan gazte ikuspegia txertatzea eta belaunaldi oso bat borroka horretara batzea. Diotenez, gazte mugimenduetan euskararen bueltan aktibatuta dauden norbanakoen eta eragileen aterpe izan nahi dute, NUPEko Euskara Taldearen antzera, Nafarroan zonifikazioaren aurka osatzen

ari den mugimendua eta Ipar Euskal Herriko ikastetxeetan euskaraz ikasteko eskubidearen alde mobilizatzen ari direnak.

Horiek guztiak eta beste hainbat batzen dituen haria da, horren aldeko borroka euren gain hartzeko prest daudela nabarmendu dutenak eta euskaraz biziko den belaunaldia izan nahi dutenak. Talde horrek, besteak beste, euskal hezkuntza oinarri duen hezkuntza bat defendatzen du, eta horri gogor eutsi nahi diote, izan ere, gure neurriko hezkuntza bat aldarrikatzen dute. Herri gogor bat dugula uste dute, Korrika

bera horren erakusle hartuta, euskaldunon kontzientzia berpiztea du helburu Euskal Herri osoa lasterka zeharkatuz. Beraz, horrelako ekimen bat antolatzea eta mugiaraztea herri honen gogortasunaren seinale dela deritzote.

Hori guztia aldarrikatzeko asmoz, aurten ere, beste manifestazio batera deitu dute eta hilaren 23an Euskal Herriko hiriburuetakako kaleak hartu dituzte. Iaz ere, besteak beste, maiatzaren 22an Donostian *Euskara aurrera* lelopean, mobilizazio ikaragarri eta ezohiko bat egin zuten. Izan ere,

gazteek antolatutako, kasu honetan, Gazte Euskaltzaleen Sareak aurrera eramandako ekintzak adin guztietako jendea mugiarazi zuen. Beraien hitzetan, "historian jaso beharreko momentu esanguratsutzat" hartu zuten. Manifestazio horretan hainbat gauza aldarrikatu zituzten: batetik, Ipar Euskal Herriko ikasleek haien azterketak euskaraz egitea eskatzen zuten; bestetik, gure pantailetan euskara sendotzea eskatzen zuten. Ipar Euskal Herriko ikasleen ordezkari, besteak beste, Irantzu Idoate joan zen, iparraldeko bertsolari gaztea, emanaldiaren amaieran hainbat bertso abestera. Bere kantuetan esan bezala, "Euskara ez da aurrera joanen, aurrera eraman behar da". Hori aldarrikatu zuten.

Arestian aipatu bezala, haien aldarrikapenetako bat euskara ikus-entzunezkoetan zabaltzea da. Horretarako, Donostian eta Bilbon hainbat protesta egin zituzten. Esaterako, pintadak egin zituzten aldarrikapenak jende gehiagori zabaltzeko asmotan.

Aurten ere, iaz bezala, lehen aipatu dugun bezala, hilaren 23an, beste aldarrikapen manifestazio bat egin zuten Euskal Herriko hainbat hiriburutan. Horren inguruko xehetasunak gaur egungo gazteriari azaltzeko helburuarekin, Gazte Euskaltzaleen Sarea Euskal Herriko ikastetxe askotatik pasa da, hitzaldi baten bidez aldarrikapenak zabaltzeko. Horien artean, guk ere, Oriarte

ikastetxeko ikasleok, azalpen horietaz gozatzeko aukera izan genuen hilabete hasieran, horri buruz hitz egitera etorri zirenean.

Gu, Euskara Batzordeko kide oro, mugimendu indartsu honen alde gaude, izan ere, oso garrantzitsua iruditzen zaigu talde horrek aldarrikatzen duena. Gure ustez, Euskal Herrian, hezkuntzak euskaraz eta euskaratik beharko luke. Bai hezkuntza aldetik, eta baita ikasgaiei dakokienez ere. Ipar Euskal Herrian, Euskal Herriko historia ikasi nahi dute, ez Frantziakoa, Euskal Herriko gainerako lurraldeetan bezala. Azterketak ere, euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatu nahi dute, eta guk ere, hezkuntza osoa, Euskal Herriko gaietan oinarritutako ikasgaietan nahi dugu.

Bestalde, Euskara Batzordeko kideak garenez, badakigu, ikastetxe honetan bertan, ikasleren aldetik, salbuespenak salbuespen, euskararen erabilera nahiko eskasa dela eta gehiengoak ez duela egunerokoan erabiltzen, beraz, gu eta Gazte Euskal Sareko kide guztiek, horren aurka ere egin nahi dugu borroka, besteak beste.

Ondorioz, gazteak oso indartsu gatzela adierazi nahi dugu, eta borrokan horretan parte hartu nahi dugula beste milaka euskaldunekin batera.

Ez gaituzte isilduko, ezta kikilduko ere, eta egoerari sutsu aurre egiteko prest gaude milaka gazte indartsu. Gora Gazte Euskaltzaleen Sarearen borroka!



Ikasle mordo bat, hilaren 23an Gazte Euskaltzaleen Sareak antolatutako manifestazioetako batean, Bilbon. G. EUSKALTZALEEN SAREA


KOMIKIA



ZORION AGURRAK

**Begoña**

Zorionak etxeko lehendakariari! Badatoz hauteskundeak, baina zuk ez dezu kanpaina egin behar... badakizu, gure bozka zuretzako! Aupa Amama! Maite zaitugu!

**Nahia**


11 urte! Zein azkar, zenbat abentura eta bizipen elkarrekin eta zenbat aldaketa! Baina gu beti zure ondoan... Disfrutatu eguna eta segi bizitzaz gozatzeko! Infinito maite zaitugu: Ekhi, Aita eta Amabix

**Laia**

Mmh-mmh-oonak zurii, mmh-mmh-oonak beti pixurrina! Gora gure etxeko abeslaria :-) Aurpegia muxuz josiko dizugu zure egunean bihotza!

**Izan**

Zorionak maitea, zure ondoan bizitza alaiagoa da, ondo pasa zure egunean. Muxu asko familia partez

**Fernando eta Ana**

Taldea sortzea abentura bat da. Partekatzea, helburua da. Elkarrekin bidaiatzea, bizitza da! ZORIONAK!!!

**Alaia**

Zorionak eta ondo pasa zure egunean! Muxu bat familiaren partetik.

**Oier**

Zorionak txapelduna!!! Ondo pasa zure egunean!!! Muxu asko familiaren partez.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 21	DE MIGUEL	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 22	DE URJUE	DE URJUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 23	DE URJUE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 24	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 25	GIL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 26	ACHA-ORBEA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 27	URBISTONDO	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Labumbe Berri 11, Hernani. 943 33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:
943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINAZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA**ERRENTAN HARTU**

Donostian hilabete batzuetarako alokairu bila gabiltzan familia bat gara. Gutxi gorabehera 2023 ko urritik 2024 ko martxora arteko hilabeteetarako behar dugu, eta Amaran, Easo plaza inguruan edota hiriko erdigunean alokatzea gustatuko litzaziguke. Ahal izanez gero 2 gelako etxebizitza behar genuke. Harremanetarako 639 98 76 45 / 690 27 04 68 (Olatz eta Aitor)

LANA**ESKAINITZA**

Barazar ostatura (Zubietan) zerbitzari bila ari da ostiral, larunbat eta

igande eguerdian lan egiteko. Harremanetarako zenbakia: 943 36 33 58.

ESKARIA

Interna gisa egingo nuke lan, asteleheneetik igandera. Esperientzia dut, eta pertsona helduak zaintzeko Eusko Jaurlaritzaren ikastaroaren ziurtagiria ere bai. Harremanetarako zenbakia: 618 81 43 63.

Pertsona helduak zein haurrak zaindiko nituzke, edota garbiketa lanak egin. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41

Lan bila nabil egun osoz edo orduka (egunez zein gauzez). Erietxeetan ere zaintza lanak egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 624 63 06 99.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaindako lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu

edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaindako lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Adineko pertsonak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Paperak behar bezala ditut eta

eskarmentua. Harremanetarako zenbakia: 648 90 67 82.

SALEROSKETA**SALDU**

Su egurra saltzen da (haritza), tximinirak, ekonomikarako... Etxera eramaten da. Harremanetarako

zenbakia: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK**HEZKUNTZA**

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaindako prest, goizez nahiz arratsaldez. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuoko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

txintxarri

www.txintxarri.eus**Argitaratzailea**

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatazaileak

Egoitz Epelde, Iñigo Garcia, Julene
Iraola, Sergio Hernandez, Ander
Hazas, Endika Merchan eta Gorka
Morales.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

OSTIRALA 21

LASARTE-ORIA Erakusketa

Diego Matxinbarrena artistaren lanak erakutsiko dituzte Siglo 20 tabernan, ekainaren 20ra arte. Sarrera, doan. Siglo taberna, 19:00etatik 21:00etara.

LARUNBATA 22

HERNANI Musika

Teatro Silforen eskutik. Euskerazko antzerkia izango da, 3 urtetik gorakoentzat. Sarrerek 3,5 euro balio du; Biteri Kultur Etxeko leihatilan eskura daitezke, edota kultura.hernani.eus atarian.

Biteri Kultur Etxea, 12:00etan.

USURBIL Dantza

Orbeldi Dantza Taldeak Dantzara: 5. Helduen Dantzari Topaketa deitu du. Honako egitaraua iragarri du:

17:30ean, dantzarien argazki ofiziala udaletxean eta kalejiraren hasiera. Honako dantza taldeek parte hartuko dute: Orbeldi, Ortzadar, Arantzarte eta Haize Dulantzi.

18:30ean, emanaldi nagusia, frontoian. Herriko zenbait lekutan, 17:30etik aurrera.

LASARTE-ORIA Musika

Go!azen telesailako aktoreek kontzertua egingo dute. Sarrerek 4 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Musika

Red Hot Chili Peppers taldearen abesti ezagunenak joko ditu Txili Papar taldeak. Ondoren, rock eta indie doinuak eskainiko ditu Dukkha taldeak. Sarrera, doan.

Insausti taberna, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Musika

Dantz Point jaialdia egingo dute Brunet Enea parkean. Musika elektronikoa du oinarri jarduera horrek. Aurtengo gonbidatuak Giovanni Almuedo eta lagunak izango dira.

Brunet Enea parkea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Jarduera

Zabaletako bizilagunek ardo dastatzea deitu dute. Jakinarazi dute Arabako Errioxako El mozo Wines upategiko lagunak etorriko direla auzora ardoa nola egiten duten kontatzera eta, nola ez, horiek dastatzeko aukera izango dute izena eman dutenek.



LASARTE-ORIA Azoka. Lore eta landareen erakusleho bilakatuko da Okendo plaza larunbat honetan, hilak 22. Behemendi Elkartek, deKolare Natur Azokak eta Lasarte-Oriako Udala dira antolatzaileak, eta iragarri dutenez, Okendo plazan egingo da aurtengoa ere. Bi ordu eta erdiko tartea izango dute herritarrek produktuak ikusi edota erostera joateko, eta etxeko txikientzat, aldiz, jolas eta tailerrak iragarri dituzte. Bihar, apirilak 22, larunbata, Okendo plaza, 10:00etatik 14:30era.

Zabaleta Auzolanen lokalean, 11:30ean.

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Dantza

Plaza Dantza egitasmoko lagunek muxikoen saioa egingo dute. Okendo plaza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Musika

Gaztambide, *La gran Zarzuela* kontzertua egingo du Sinfonia Navarrak eta Coral Olitensek. Raquel Fernandez (sopranoa) eta Jose Luis Sola (tenorea) bakarlariak eta Rinaldio Zhok piano jotzailea ere arituko dira horiekin. Sarrerek 14 euro balio dute. Kultur etxea, 19:00etan.

OSTEGUNA 27

LASARTE-ORIA Dantza

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute herriko zenbait kultur eragilek. Honako taldeek parte hartuko dute: Erketz dantza taldea; Amaia Gonzalez Caballero; Semblante Andaluz, Saharar taldea eta Kukuka Antzerki eta Dantza taldea.

Okendo plaza, 19:00etan.

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Literatura

Ainzane Usandizaga herritarrek bere azken lana aurkeztuko du, *Zomorrotu* ipuin liburua. Hauxe izango da egitaraua: Solasaldian, Ainzane

Usandizaga eta Danele Sarriugarte. Irakurtzen, berriz, Oihana Arana eta Leire Vargas arituko dira, eta, musikaren, berriz, Antxuna ta Patx. Agora taberna, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

The Fabelmans pelikula proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan zein Kutxabank Sarrerak atari digitaletan eros daitezke. Kultur etxea, 22:00etan.

LARUNBATA 29

LASARTE-ORIA Bertso saioa

Udaberriko Bertso Saioa egingo du Ttakun Kultur Elkartek, udalarekin elkarlanean. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 30

LASARTE-ORIA Zinema

Lau ahizpa magikoak pelikula emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan zein Kutxabank Sarrerak atari digitaletan eros daitezke. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Loli Tormenta filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan zein Kutxabank Sarrerak atari digitaletan eros daitezke. Kultur etxea, 19:30ean.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

KULTUR ETXEA

'The Fabelmans'

Ostirala 28

22:00.

'Lau ahizpa magikoak'

Igandea 30

17:00.

'Loli tormenta'

Igandea 30

19:30.

ANDOAIN

BASTERO

'20.000 especies de abejas'

Larunbata 22

19:30, 22:00.

Igandea 23

19:30, 22:00.

Igandea 23

19:30, 22:00.

Astelehena 24

19:30, 22:00.

'Super Mario

Bros la película'

Igandea 23

17:00.

USURBIL

CINESA URBIL

'Super Mario Bros'

Ostirala 21

15:45, 16:30,

17:00, 18:00,

19:00, 19:30,

20:30, 22:00.

Larunbata 22

15:45, 16:30,

17:00, 18:00,

19:00, 19:30,

20:30, 22:00.

Igandea 23

15:45, 16:30,

17:00, 18:00,

19:00, 19:30,

20:30, 22:00.

'Vaya vacaciones'

Ostirala 21

17:25, 19:45,

22:20.

Igandea 23

17:25, 19:45,

22:20.

15:45, 18:00,

20:20, 21:50.

Larunbata 21

15:45, 18:00,

20:20, 21:50.

Igandea 23

15:45, 18:00,

20:20, 21:50.

'Dungeons & Dragons: honor entre ladrones'

Ostirala 21

19:00.

Larunbata 22

19:00.

Igandea 23

19:00.

'Posesión infernal: el despertar'

Ostirala 21

17:25, 19:45,

22:20.

Larunbata 22

17:25, 19:45,

22:20.

Igandea 23

17:25, 19:45,

22:20.

Igandea 23

17:25, 19:45,

22:20.

17:25, 19:45,

22:20.

'El exorcista del papa'

Ostirala 21

16:45, 19:10,

22:35.

Larunbata 22

16:45, 19:10,

22:35.

Igandea 23

19:10, 22:35.

'Air'

Ostirala 21

22:15.

Larunbata 22

22:15.

Igandea 23

22:15.

'Irtati'

Ostirala 21

16:25.

Larunbata 22

16:25.

Igandea 23

16:25.

Igandea 23

16:25.



LABURPENA

'The Fabelmans'

Zuzendaria: Steven Spielberg. **Gidoia:** Tony Kushner, Steven Spielberg. **Argazkia:** Janusz Kaminski. **Ekoizleak:** Amblin Partners, Universal Pictures, Amblin Entertainment, Universal Pictures. **Herrialdea:** Ameriketako Estatu Batuak (2022). **Iraupena:** 151 minutu. **Generoa:** Drama biografikoa. **Aktoreak:** Michelle Williams, Paul Dano, Gabriel LaBelle, Seth Rogen, Judd Hirsch, Mateo Zoryon Francis-DeFord, Julia Butters, Jeannie Berlin, Oakes Fegley, David Lynch, Robin Bartlett, Gabriel Bateman, Nicolas Cantu, Sam Rechner, Chloe East, Isabelle Kusman, Jonathan Hadary, Sophia Kopera, Birdie Borria, Alina Brace, Keeley Karsten, Chandler Lovelle.

Drama biografiko bat

Steven Spielbergen haurtzaroko eta gaztaroko film autobiografikoa da. 1950eko hamarkadaren amaieran eta 1960ko hamarkadaren hasieran girotutako Sammy Fabelman izeneko Arizonako haur batek, bere ama xelebreak, Michelle Williamsek

eta bere aita pragmatikoak, Paul Danok eraginda, familiako sekretu suntsitzaile bat aurkituko du, eta filmek istorioak kontatzen eta bere nortasuna eratzten nola lagun diezaiketent aztertuko du. 151 minutuko drama biografikoaren berri jasoko dute ikus-entzuleek.



LASARTE-ORIAKO
ANDREJOAKINA HAURRESKOLA



Kalbario bidea, 2 Tel: 943-36 72 38 andrejoakina.lasarte-oria@haurrezkolak.eus

Izena emateko epea:

Matrikula:
apirilaren 24tik maiatzaren 16ra

Aurrez aurrekoa:
9:30etik 12:30era eta
14:30etik 15:30era

Online:
www.haurrezkolak.eus



Euskadi, auzolana

ELKARLANA


LEHEN URRATSA

ZERO URTEREKIN HASTEN DA BIDEA

Argazki lehiaketa

txintxarri

ASTE
SANTUA **23**



iazko argazki lehiaketako irudi batzuk

aldika productos selectos

INDUSTRIALDEA 19-20 LASARTE-ORIA • ALDIKA@ALDIKA.COM

ERRIGORA
WWW.ERRIGORA.EUS